Adopzioa
Adopción

Teléfono de información
943 11 26 77



# Adopción internacional:
# Guía para las personas que se ofrecen a la adopción

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa zure ondoan

# Adopción internacional:

# Guía para las personas que se ofrecen a la adopción

# Adopzioa
# Adopción

**Esta guía se dirige a las personas interesadas en ofrecerse para la adopción de una niña, niño o adolescente extranjero/a.** Con ella, la Diputación Foral de Gipuzkoa pretende:

- Dar a conocer los principios y normativa vigente, en materia de adopción internacional.
- Informar sobre las características específicas de este tipo de adopción.
- Explicar los pasos que se deben dar para tramitarla.
- Ayudar a todas aquellas personas, que están pensando en adoptar una niña o niño de origen extranjero, a reflexionar sobre este paso tan importante.



Todas las niñas y niños tienen derecho a crecer en su propia familia, así como a conservar los vínculos con su grupo de origen y su país natal. Sin embargo, a veces, esto no es posible. La adopción es una medida recomendada, únicamente, cuando no es posible que los menores crezcan en su propia familia. Por ello, la adopción internacional se concibe como un beneficio, solamente, cuando no es posible la adopción en una familia del entorno propio de la niña o niño.

Este derecho, junto a otros, se encuentra recogido en la "Convención sobre los Derechos del Niño", aprobada por la Organización de las Naciones Unidas, el 20 de noviembre de 1989. Éste es un instrumento ratificado por el Estado español, que activa las normativas legales vigentes en materia de personas menores de edad.

Por tanto, la adopción internacional es una medida subsidiaria a cualquier otra alternativa que permita el desarrollo adecuado e integral de la persona menor de edad en su país de origen, y se concibe como un **recurso de protección para las niñas, niños y adolescentes de origen extranjero.**



## Marco normativo de referencia

La siguiente normativa constituye el marco normativo de referencia en materia de adopción internacional:

- **Internacional:** "Convención sobre los Derechos del Niño", aprobada por la Asamblea General de las Naciones Unidas, el 20 de noviembre de 1989, y "Convenio de La Haya", de 29 de mayo de 1993, relativo a la protección de los niños, niñas y adolescentes y a la cooperación en materia de adopción internacional.




- **Estatal:** Ley 54/2007, de 28 de diciembre, de Adopción Internacional y Código Civil.
- **Autonómica:** Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y Adolescencia. Decreto 114/2008, de 17 de junio, por el que se regula el procedimiento de actuación que deberán seguir las Diputaciones Forales en materia de adopción de personas menores de edad. Decreto 263/2003, de 28 de octubre, por el que se regula la acreditación y el funcionamiento de las Entidades Colaboradoras de Adopción Internacional (ECAI) y Orden de 5 de mayo de 2008, por el que se regula el Registro de dichas Entidades.

# Características específicas de la adopción internacional

La mayoría de las personas interesadas en la adopción dirigen su ofrecimiento a otro país, porque en Gipuzkoa resulta difícil conseguirla. Sin embargo, no es lo mismo adoptar a una persona menor de edad en nuestro entorno, que en el extranjero.

Estas últimas adopciones tienen características especiales que las diferencian - tales como los diferentes rasgos étnicos del menor, el idioma, la cultura o las costumbres de su país de origen, entre otras circunstancias-. Las personas interesadas en la adopción internacional deben tener en cuenta estos factores, para poder reflexionar sobre ellos, antes de que la adopción haya tenido lugar.

**Existen algunos factores que pueden condicionar la decisión a tomar, como por ejemplo:**

## Factores de orden psicosocial

- Actitudes de madres y padres adoptivos, y de su entorno, hacia las diferencias étnicas.

Es importante informarse sobre estas actitudes y reflexionar sobre ellas, antes de decidirse a hacer una adopción en otro país. La estabilidad e integración de la niña o niño, en su nueva familia y en su medio social, van a estar altamente condicionadas por la valoración de su raza.

- El grado de interés de las personas solicitantes por el país de origen del niño o niña, su cultura, sus costumbres, su lengua... Este hecho es importante para la niña o niño, porque es una forma de valorarle.

- Tener conciencia de las cuestiones a las que la persona adoptada deberá hacer frente a lo largo de su desarrollo evolutivo:
    - Asumir la vivencia de un pasado en otro país y la necesidad de que se pueda estar disponible para hablar sobre ello, sin negarlo.
    - Aceptar la diferencia racial y/o cultural (proceso, a veces, costoso).
    - Aceptar el despertar del interés por sus orígenes, especialmente al llegar a la adolescencia. Ésta es una curiosidad normal, no sintomática de un conflicto, que se debe permitir expresar y compartir.

## Factores de orden legal

En la adopción de una niña o niño de origen extranjero es preciso tener en cuenta que intervienen dos legislaciones: la del país de origen de la niña o niño y la del país de residencia de las personas que se ofrecen para la adopción. Por lo tanto, se deberán tener en cuenta los requisitos que exigen las legislaciones de ambos países, para que la adopción se pueda constituir sin posteriores problemas legales. En cualquier caso, **la persona menor de edad será adoptada conforme a la ley de su país de origen.**

Es muy importante, por tanto, informarse sobre la regulación de la adopción del país al que se dirige el ofrecimiento para la adopción y su compatibilidad legal con la regulación española, con el fin de asegurarse de que la persona menor de edad pueda salir de su país de origen, con una resolución de adopción plena o una resolución de adopción simple, tutela o guarda -que posibilite, posteriormente, su adopción plena en Gipuzkoa-. Esta cuestión es sumamente importante para que la adopción tenga plenos efectos en nuestro país.



A continuación, exponemos, brevemente, las formas jurídicas que se contemplan en los distintos países:

- **Adopción plena:** Es la única en la legislación estatal y es la que produce efectos más amplios: rompe los vínculos legales de la persona menor de edad con su familia biológica; crea, entre la hija o hijo y las madres y padres adoptivos, los mismos derechos y obligaciones que la filiación biológica; y es irrevocable.
- **Adopción simple:** Hay países que, al contrario que en España, sólo regulan la adopción simple -modalidad jurídica cuyos efectos son más reducidos que los de la adopción plena-. No se rompen vínculos entre la persona menor de edad y su familia de origen y la adopción es revocable (es decir, puede quedar sin efecto).
- **Tutela o guarda:** Otros países contemplan en su legislación que cuando la adopción se realiza por personas extranjeras, el juez no resuelve una adopción, sino que otorga la tutela o guarda. Esto implica que la persona menor de edad deberá ser posteriormente adoptada en el país de residencia de la familia adoptante. En la citada resolución debe constar, expresamente, la finalidad de adopción. Una vez aquí, las personas interesadas deben proseguir los trámites para constituir la adopción; para lo cual, deberán ponerse en contacto con el organismo competente en materia de protección a la infancia -en el caso de Gipuzkoa, la Diputación Foral-.
- **Países sin adopción:** Hay otros países que no contemplan la figura de la adopción en sus legislaciones (como es el caso de los países árabes, por ser contraria a su religión).



# Organismos que intervienen en la tramitación de una adopción internacional

Teniendo en cuenta que hay dos países presentes en la tramitación de una adopción internacional -el de las personas que se ofrecen para la adopción y el del niño o niña a adoptar-, existen, también, organismos oficiales de uno y de otro país que intervienen en las diferentes fases del proceso de la adopción.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

## Organismos oficiales del Estado

### Diputación Foral de Gipuzkoa

En Gipuzkoa, la autoridad competente en protección de las personas menores de edad y en cooperación en materia de adopción internacional es la Diputación Foral. Esta institución realiza las siguientes funciones:

**En la fase pre-adoptiva:**

- Facilita información sobre legislación, requisitos y trámites necesarios en España y en los países de origen de los/as niños/as para poder adoptar.
- Facilita formación previa a las personas que desean adoptar para comprender y afrontar las implicaciones de la adopción internacional, preparándolas para el adecuado ejercicio de sus funciones parentales una vez constituida aquélla.
- Recibe las solicitudes de declaración de idoneidad y expide los certificados de idoneidad, previa elaboración, del informe psicosocial de las personas solicitantes.
- Recibe la asignación de el/la niño/a a la familia adoptante y emite la conformidad a dicha asignación.
- Presta apoyo técnico a las familias adoptantes durante el proceso de adopción.

**En la fase post-adoptiva:**

- Se responsabiliza del seguimiento de la adaptación de el/la niño/a adoptado/a a la familia, supervisando los informes realizados por la ECAI en el caso de que la adopción se haya tramitado a través de esta Entidad y, en otro caso, emitiendo estos informes.
- Presta apoyo técnico a las familias para la adecuada atención de los/as niños/as adoptados/as, en particular, a las que hayan adoptado a niños/as con características o necesidades especiales.

## Entidades Colaboradoras de Adopción Internacional (ECAI)

Son asociaciones o fundaciones sin ánimo de lucro, legalmente constituidas, en cuyos estatutos figura, como fin, la protección de personas menores de edad y que, reuniendo los requisitos previstos en la norma correspondiente, han obtenido la acreditación del Gobierno Vasco para intervenir, como agentes mediadores, en los procesos de adopción internacional.

Estas asociaciones deben ser autorizadas por las autoridades competentes, tanto del país de origen del menor, como del país de los solicitantes, para poder iniciar su labor de colaboración.

Sus funciones, bajo el control y seguimiento de las Administraciones públicas competentes, son las recogidas en los artículos 16 a 18 del Decreto 263/2003, de 28 de octubre, del Gobierno Vasco, por el que se regula la acreditación y el funcionamiento de las mismas.

**Ministerio de Educación, Política Social y Deporte**
Canaliza la información oficial sobre requisitos, condiciones, legislaciones, etc. de los países de origen de las niñas y niños a adoptar.
Gestiona la tramitación de expedientes, para su remisión a la autoridad homóloga del país de origen de la persona menor (si se tramitan adopciones con países sin la intervención de Entidades Colaboradoras de Adopción Internacional).
Supervisa que se cumplan las condiciones que indiquen la adoptabilidad de las personas menores de edad, así como el cumplimiento del procedimiento legalmente establecido.



**Órganos judiciales**
Su función se circunscribe a la aprobación de la adopción, cuando los niños y las niñas llegan de su país de procedencia con resolución de adopción simple, tutela o guarda y es necesario formalizar su adopción plena en España.

## Organismos oficiales del país de origen del niño, niña o adolescente

### ■ Las autoridades centrales de cada país

Son competentes en materia de protección de personas menores de edad y en cooperación en materia de adopción internacional. Su denominación varía, en función de cada país. Son el equivalente a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ministerio de Educación, Política Social y Deporte.

**Funciones:**

- Informar sobre el procedimiento de tramitación, los requisitos…
- Recepción de expedientes.
- Análisis y estudio de los mismos, con el fin de proceder a la asignación de un niño o niña a la familia que se considere más adecuada para el menor.
- Supervisión de que se cumplan las condiciones que indiquen la adoptabilidad de las personas menores, así como el cumplimiento del procedimiento legalmente establecido.

## Los órganos judiciales o administrativos

Cuando en el país de origen de la persona a adoptar se formaliza la adopción plena, su función es aprobar la adopción, bien sea en instancias judiciales o administrativas (según lo señale la legislación del país en cuestión).



## Tramitación de la opción en Gipuzkoa

Como ya se ha mencionado, la Diputación Foral de Gipuzkoa ofrece información, asesoramiento, formación, apoyo y seguimiento, a lo largo de todas las etapas del proceso adoptivo y es la encargada de expedir el Certificado de Idoneidad (documento indispensable para poder acceder a una adopción internacional).

Antes de comenzar a tramitar una adopción internacional es conveniente informarse adecuadamente.

Para ello, las personas residentes en Gipuzkoa que desean recibir información sobre esta materia pueden dirigirse a:

- La Administración pública:
  **DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**
  **DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL**
  **-SECCIÓN DE INFANCIA Y JUVENTUD-**
  **Edificio Txara 2. P.º Zarategi, 99**
  **20015 Donostia-San Sebastián**
  **Tel: 943 11 26 77**
  **E-mail: lorbegozo@gipuzkoa.net**
- Las Entidades Colaboradoras de Adopción Internacional (ECAI).
- Las asociaciones de familias adoptivas.

## ¿Cómo se inicia el proceso?

El primer paso consiste en asistir a una sesión sobre adopción internacional, previa cita en el nº de teléfono 943 11 26 77. Esta sesión se compone de dos partes, cada una de ellas de tres horas de duración. En la primera, se abordan el marco jurídico de la adopción internacional y el procedimiento de tramitación y en la segunda, los aspectos psico-educativos de la adopción internacional. **La asistencia a ambas es obligatoria para poder presentar la solicitud de declaración de idoneidad.**

Existe, asimismo, una tercera sesión informativa, en la que se plantean aspectos relacionados, directamente, con los países en los que se puede tramitar una adopción internacional (requisitos, órganos competentes, tipo de tramitación…). Esta sesión es opcional.

## Requisitos básicos

- Ser mayor de 25 años. En caso de matrimonio o unión de hecho, basta con que una persona sea mayor de 18 y la otra, mayor de 25.
- Residir en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Que exista una diferencia de edad máxima de 44 años, entre la persona menor que va a ser adoptada y la familia adoptante. En los matrimonios y uniones de hecho, se tendrá en cuenta la edad del más joven.
- En caso de ser matrimonio o unión de hecho, se debe demostrar una convivencia mínima de dos años.



## Descripción del proceso

**Asistencia a la sesión informativa sobre adopción internacional.** Al finalizar la primera sesión, la Diputación Foral de Gipuzkoa entrega **a las familias la solicitud de declaración de idoneidad** y el resto de documentos, que han de presentar para iniciar el expediente.

**Presentación de la solicitud de declaración de idoneidad, junto con el resto de la documentación.** En la solicitud, se debe indicar cuál es el país elegido para tramitar la adopción. También, si se opta por la tramitación del expediente a través de una ECAI o a través de la Diputación Foral de Gipuzkoa (vía pública).

**Valoración psico-social de los solicitantes.** La Diputación Foral de Gipuzkoa contactará con las personas oferentes, para la realización de las entrevistas necesarias para la emisión de los informes psicológico y social.



**Emisión, en su caso, de la declaración de idoneidad y el certificado de idoneidad.** El período de validez de la declaración de Idoneidad es de tres años, siendo válido para un único proceso y/o expediente de adopción. Si una familia es idónea para más de un menor, se entiende que la adopción debe darse de forma simultánea y no sucesiva -empleándose el Certificado de Idoneidad en un mismo momento de la adopción y no en diferentes meses o momentos-

**Notificación de la resolución de idoneidad a los interesados.** A partir de este momento, si la adopción se tramita a través de una ECAI, ésta se ocupará de ayudar a las personas interesadas en la tramitación del expediente. Si se opta por la vía pública, será la Diputación Foral de Gipuzkoa la institución que asesorará a los oferentes, sobre la documentación a preparar y el procedimiento a seguir.

**Formación del expediente.** Los solicitantes deberán preparar la documentación exigida por el país de origen del niño o niña a adoptar y que conformará el expediente de adopción. Posteriormente, dicha documentación deberá ser traducida al idioma oficial del país al que se dirige el ofrecimiento, legalizada y autentificada.



**Remisión del expediente al país elegido.** El expediente se remite al organismo competente en materia de adopción del país elegido, a través de la ECAI o a través del Ministerio de Educación, Política Social y Deporte, según sea la vía de tramitación seleccionada.

**Asignación de una niña, niño o adolescente adoptable, por parte del país elegido a la familia oferente.**

**Aprobación de la asignación por la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los casos en que proceda.**

**Aceptación de la asignación, por parte de la familia oferente.**

**Desplazamiento de la familia al país elegido y constitución de la adopción.**

**Inscripción de la adopción en el Registro Civil español.**

**Seguimiento post-adoptivo.** Los informes de seguimiento, que se realizan para supervisar el proceso de adaptación de la persona adoptada, serán realizados por la ECAI o por la Diputación Foral de Gipuzkoa, dependiendo de si la familia ha tramitado la adopción con mediación de una ECAI o por vía pública. Los informes se elaborarán con la periodicidad exigida por el país de origen de la persona menor de edad.

## Tramitación de la adopción en el país del adoptando

La autoridad central del país al que se ha dirigido el ofrecimiento para la adopción, una vez valorado el expediente -especialmente, las características de las personas que se ofrecen, su adecuación a los requisitos exigidos por dicho país y en función de las personas menores de edad susceptibles de ser adoptadas-, realiza la asignación de una niña, niño o adolescente a las futuras personas adoptantes.

Dicha asignación, acompañada de información sobre la niña o niño (situación jurídica, datos sobre su salud, familia, etc.) se comunica a la familia oferente y, en los casos que proceda, a la Diputación Foral de Gipuzkoa o a la ECAI, para recabar los consentimientos necesarios y la aceptación, o no, de la asignación realizada.



Una vez realizados estos trámites, se espera a que, desde la autoridad central competente o la ECAI habilitada del país de origen de la niña o niño a adoptar, se informe a los futuros adoptantes de la fecha en que deberán trasladarse a dicho país. La duración de la estancia puede variar, aunque generalmente no es inferior a 15-20 días -período necesario, no sólo para la tramitación de la adopción sino, sobre todo, como período de acoplamiento y convivencia entre el niño, niña o adolescente y la familia adoptiva-.

# ¿Qué se debe hacer después de adoptar y regresar al país de los adoptantes?

Al llegar a Gipuzkoa, los adoptantes deben ponerse en contacto con la Diputación Foral, para comunicar la llegada de la persona menor de edad, aportar los documentos necesarios (por ejemplo, la sentencia o resolución de adopción) y comenzar la fase de seguimiento de la adaptación mutua, entre la persona adoptada y la familia adoptiva.

Para que la adopción surta efecto en este país y la persona menor de edad adquiera la nacionalidad española, es necesaria su inscripción en el Registro Civil. Este trámite puede realizarse:

- En la Embajada o Consulado de España en el país de origen del menor.
- O, una vez en Gipuzkoa, en el Registro Civil Central o en el Registro del lugar de residencia de la familia, que lo trasladará al Central.

Se debe remitir copia de la inscripción en el Registro Civil a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cuando se trate de adopción simple, tutela o guarda con fines de adopción, una vez que el menor llegue a Gipuzkoa, será necesario constituir la adopción plena. Para ello, la familia deberá presentar diversa documentación y emitirse el primer informe de seguimiento favorable.



## ¿Cuánto tiempo cuesta tramitar una adoptanción internacional?

El tiempo necesario para tramitar una adopción puede variar, incluso dentro de un mismo país, dependiendo de factores tales como la demanda interna de adopciones, las características de los oferentes, etc. Por eso, es difícil dar un plazo, ni siquiera de forma aproximada.

En general, no es posible finalizar un procedimiento correcto de adopción en menos de un año (desde que el expediente llega del país de origen de las personas menores de edad), tomando siempre este plazo como un indicador aproximado.



## ¿Qué gastos ocasiona una adopción internacional?



**Todos los trámites en los que participa la Diputación Foral de Gipuzkoa, incluida la tramitación del Certificado de Idoneidad, son gratuitos.**

Sin embargo, a lo largo del procedimiento de adopción, se debe hacer frente a una serie de gastos inevitables, que corren a cargo de las personas que se ofrecen para la adopción. Los gastos corresponden a los siguientes conceptos:

- Legalización de documentos, cuando interviene un notario.
- Tasas de autentificación de los documentos, en el consulado del país de origen.
- Traducción de la documentación, si se dirige a un país cuyo idioma oficial sea distinto al nuestro.
- Honorarios del abogado del país elegido, cuando es necesario su nombramiento.
- Desplazamiento y estancia en el país.
- Cuotas de las Entidades de Colaboración de Adopción Internacional.
- Aportaciones que exige el país para estudio de expedientes, preparación del menor, etc.

Adopzioa
Adopción

Teléfono de información
943 11 26 77



# Nazio arteko adopzioa
# adopziorako aurkezten diren pertsonentzako gida

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa
zure ondoan

# Nazio arteko adopzioa

## adopziorako aurkezten diren pertsonentzako gida

# Adopzioa
# Adopción

**Gida hau atzerriko haur edo nerabe bat adoptatzeko prest dauden pertsonentzat da.** Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa honakoa da:

- Nazioarteko adopzioaren gaineko oinarriak eta indarrean dagoen araudia ezagutaraztea.
- Adopzio mota horren ezaugarri zehatzen gaineko informazioa ematea.
- Izapideak egiteko eman behar diren pausoak azaltzea.
- Atzerriko haur bat adoptatzea buruan darabilten horiei guztiei pauso garrantzitsu hori emateko gogoeta egiten laguntzea.



Haur guztiek dute beren familian hazteko eskubidea, baita beren jatorriko taldearekin eta herrialdearekin dituzten loturei eustekoa ere. Alabaina, batzuetan, hori ezinezkoa da. Adopzioa, soil-soilik, adingabeak beren familian hazi ezin direnean gomendatzen da. Horregatik, nazioarteko adopzioa onura gisa soilik egiten da, haurraren inguruan adopzioa posible ez denean soilik.

Eskubide hori, beste batzuetan batera, “Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean” biltzen da. Konbentzio hori Nazio Batuen Erakundeak onartu zuen, 1989ko azaroaren 20an; Estatu espainiarrak berretsitako tresna da, eta adingabeei dagozkien indarreko legezko arauak aktibatzen ditu.

Beraz, nazioarteko adopzioak adingabeak bere jatorriko herrialdean ondo garatzeko duen beste edozein aukera ordezkatzen du, eta **atzerriko haurrentzako eta nerabeentzako babes baliabide gisa** egiten da.



Adopzioa
Adopción

## Erreferentziazko arau esparrua

Araudi honek nazioarteko adopzioaren gaineko erreferentziazko arau esparrua osatzen du:

- **Nazioartekoa:** "Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena", 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuetako Batzar Nagusiak onartua eta 1993ko maiatzaren 29ko "Hagako Hitzarmenean" biltzen dena, haurren babesari eta nazioarteko adopzioetako lankidetzari buruzkoan.
- **Estatukoa:** 2007ko abenduaren 28ko 54/07 Legea, nazioarteko adopzioari eta kode zibilari buruzkoa.
- **Autonomikoa:** Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legea; 2008ko ekainaren 17ko 114/2008 Dekretua, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena; 2003ko urriaren 28ko 263/03 Dekretua, nazioarteko adopziorako entitateen egiaztapena eta funtzionamendua arautzen dituena (ENAEL), eta 2008ko maiatzaren 5eko Agindua, aipatutako entitateen erregistroa arautzen dituena.

# Nazioarteko adopzioaren ezaugarri zehatzak

Adopzioa interesatzen zaien gehienek eskaintza beste herrialde batean egiten dute; izan ere, Gipuzkoan zaila da lortzea. Hala ere, ez da gauza bera gure inguruko adingabe bat adoptatzea edo atzerriko bat adoptatzea.

Atzerriko adopzioek ezaugarri bereizgarriak dituzte –hala nola, adingabearen ezaugarri etnikoak, hizkuntza, edota bere jatorriko herrialdeko ohiturak-. Nazioarteko adopziorako prest daudenek kontuan izan behar dituzte faktore horiek, adoptatu aurretik gogoeta ondo egiteko.

**Badira erabakia baldintza dezaketen faktore batzuk, esate baterako:**

## Faktore psiko-sozialak

- Gurasordeek eta haien ingurukoek etnia ezberdintasunen aurrean duten jarrera.

Beste herrialde batean adopzioa egin aurretik, garrantzitsua da jarrera horien gainean informazioa izatea eta gogoeta egitea. Haurrak familia berrian eta gizartean izango duen egonkortasuna eta integrazioa asko baldintzatuko ditu haren arrazaren balorazioak.

- Eskaera egin duten pertsonek zer nolako interesa duten haurraren jatorriko herrialdearen gainean, hango kulturan, ohituretan, hizkuntzan… Hori oso garrantzitsua da haurrentzat, hura baloratzeko modu bat baita.

- Adoptatutako pertsonak eboluzio-garapenean aurre egin beharko dion guztia aintzat hartzea:
    - Lehenaldia beste herrialde batean izan duela eta horri buruz hitz egiteko beharra izan dezakeela onartzea, ukaziorik gabe.
    - Arraza eta/edo kultura desberdintasuna onartzea (prozesua, batzuetan kostatakoa).
    - Jatorriari buruzko interesa badu, onartzea, batez ere nerabezarora iristean. Jakin-min hori ohikoa da, ez du esan nahi gatazka egongo denik; adierazten eta partekatzen utzi behar zaio.

## Lege faktoreak

Atzerriko haur bat adoptatzen, halabeharrez kontuan izan behar da bi legedik esku hartzen dutela: haurraren jatorriko herrialdekoak, eta adopziorako aurkezten diren pertsonak bizi diren herrialdekoak. Beraz, gerora adopzioan arazorik egon ez dadin, bi herrialdeetako araudiek eskatzen dituzten baldintzak izan beharko dira kontutan. Edonola ere, **adingabea bere herrialdean indarrean dagoen araudiari jarraiki adoptatuko da.**

Oso garrantzitsua da, beraz, adopziorako eskaintza egiten den herrialdeko araudiaz ondo informatzea, baita Espainiako araudiarekin bateragarria den ikustea ere; hala, adingabea bere herrialdetik atera daitekeela ziurtatuko da, erabateko adopzio ebazpenarekin, adopzio sinplearenarekin, tutoretzan edo zaintzan –gero Gipuzkoan erabateko adopzioa egiteko aukerarekin-. Hori kontuan hartzea oso garrantzitsua da adopzioak gure herrialdean erabateko efektua izan dezan.



Jarraian, labur-labur, hainbat herrialdetako legeak azalduko ditugu:

- **Erabateko adopzioa:** Estatuko araudian bakarra da, eta efektu zabalenak ditu: adingabea eta haren familia biologikoaren loturak apurtzen ditu; adoptatutako haurraren eta gurasordeen artean seme-alaba biologikoen pareko eskubide eta obligazioak sortzen ditu; ezeztaezina da.
- **Adopzio sinplea:** Herrialde batzuetan, Espainian ez bezala, adopzio sinplea soilik arautzen dute –erabateko adopzioan baino efektu murriztuagoak dituen arau modalitatea-. Ez dira adingabearen eta haren jatorriko familiaren arteko loturak apurtzen, eta adopzioa ez da ezeztaezina (hau da, efekturik gabe gera daiteke).
- **Tutoretza edo zaintza:** Beste herrialde batzuetako araudian atzerritarrek adoptatzen dutenean, epaileak ez du adopzioa ebazten, tutoretza edo zaintza ematen die. Horrek esan nahi du adingabea gero familiaordearen herrialdean adoptatu beharko dutela. Ebazpen horretan, espresuki, adopzioaren xedea azaldu beharko da. Hona etorritakoan, interesdunek adopziorako izapideekin jarraitu beharko dute; horretarako, haurrak babestearen gainean eskumena duen erakundearekin jarri beharko dira harremanetan –Gipuzkoan, esaterako, Foru Aldundiarekin-.
- **Adopziorik gabeko herrialdeak:** Beste herrialde batzuek, aldiz, ez dute adopzioa beren araudian sartzen (herrialde arabiarretan, kasu, erlijioaren aurkakoa baita).



# Nazioarteko adopzio izapidetzeko orduan esku hartzen duten erakundeak

Nazioarteko adopzioa izapidetzerakoan bi herrialde daudela kontuan izanda -adopziorako aurkezten diren pertsonena eta adoptatuko duten haurrarena-, adopzio prozesuaren faseetan eta herrialde bakoitzeko erakunde ofizialek hartzen dute parte.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

## Estatuko erakunde ofizialak
## Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoan, adingabeen babesean eta nazioarteko adopziorako lankidetzan Foru Aldundiak du eskumena.
Erakunde horrek funtzio hauek betetzen ditu:

### Adopzio aurreko fasean:

- Espainian eta haurren jatorrizko herrialdeetan adopziorako beharrezkoak diren tramiteei, baldintzei eta legeriari buruzko informazioa ematen du.
- Adoptatu nahi dutenei aldez aurreko prestakuntza ematen die nazioarteko adopzioaren inplikazioei aurre egiteko eta behin adopzioa gauzatzen denean guraso zereginak modu egokian bete ditzaten prestatzeko.
- Egokitasun aitorpenaren eskaerak jasotzen ditu eta egokitasun agiriak egiten ditu, eskatzaileen txosten psikosoziala egin ondoren.
- Familiari egokitu zaion haurraren esleipena jasotzen du eta oniritzia ematen dio.
- Familia adoptatzaileei laguntza teknikoa ematen die adopziorako prozesuan zehar.

**Adopzio ondoko fasean:**

- Adoptatutako haurraren egokitasunaren jarraipenaren ardura familiari ematen dio eta, ENAElek egindako txostenak gainbegiratzen ditu, adopzioa entitate horren bitartez egin bada, eta bestela, txostenak eginez.
- Familiei behar duten laguntza teknikoa eskaintzen die adoptatutako haurren zaintza egokia izan dadin, bereziki ezaugarri edo behar bereziak dituzten haurrak adoptatu dituzten familiei.

**Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileak (NAEL)**

Etekinik ateratzeko asmorik ez duten elkarteak eta fundazioak dira. Legez sortuak dira, eta beren estatuetako xedea adingabeak babestea da. Arau horri dagokionean behar diren baldintzak betetzen dituzte, eta, hala, Eusko Jaurlaritzaren baimena lortu dute, bitartekari gisa, nazioarteko adopzio prozesuan esku hartzeko.

Elkarte horiek beren lankidetza lanari ekiteko eskudun agintarien baimena izan behar dute, bai adingabearen sorterrikoa, bai eskaria egin dutenen herrialdekoa.

Beren funtzioak eskudun Administrazio publikoek kontrolatu eta jarraitzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritzaren 2003ko urriaren 28ko 263/2003 Dekretuan, Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen kreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituenean jasotakoa betetzen dute.

## Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa

Adoptatuko diren haurren jatorriko herrialdeko betebeharren, baldintzen, legeen eta abarren gaineko informazioa bideratzen du.

Txostenen izapideak kudeatzen ditu, adingabearen jatorriko herrialdeko agintari homologoari bidaltzeko (Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen esku-hartzerik ez dagoen herrialdeetan izapidetzen badira).

Adingabeak adoptatzeko baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzen du, baita legez ezarritako prozedura betetzen dela ere.



## Organo judizialak

Beren funtzioa adopzioa onartzera mugatzen da, haurrak beren herrialdetik adopzio sinplean, tutoretzan edota zaintzan iristen direnean eta haien adopzioa Espainian legezko egin behar denean.

## Jatorriko herrialdeko erakunde ofizialak

### ■ Herrialde bakoizteko erakunde zentralak

Adingabeak babesteko eta nazioarteko adopzioan laguntzeko eskumena dute. Izena herrialde bakoiztean berea dute. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren baliokide dira.

**Funtzioak:**

- Izapide prozeduraren, baldintzen eta abarren gaineko informazioa ematea.
- Txostenak jasotzea.
- Txosten horiek aztertu eta ikertzea, gero adingabearentzako egokien ikusten den familiari aurretiko esleipena egiteko.
- Adingabeak adoptatzeko baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzen du, baita legez ezarritako prozedura betetzen dela ere.

## ■ Organo judizial eta administratiboak

Adoptatu behar den haurraren sorterrian adopzioa gauzatzen denean, organo horrek adopzioa onartu behar du, instantzia judizialetan edo administratiboetan (dagokion herrialdeko legediak adierazten duenaren arabera).



# Adopzio izapideak Gipuzkoan

Lehen aipatu gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak informazioa, aholkularitza, prestakuntza, babesa eta jarraipena eskaintzen ditu adopzio prozesu guztian. Egokitasun Agiria ere berak ematen du (nazioarteko adopziorako ezinbesteko agiria).

Nazioarteko adopzio bat izapidetzen hasi aurretik, ondo informatzea komeni da.

Horretarako, Gipuzkoan bizi direnek hainbat tokitan eskatu ahal izango dute gai horren gaineko informazioa:

- Administrazio publikoa:
  GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
  GIZARTE POLITIKARAKO DEPARTAMENTUA
  - HAUR ETA GAZTEEN ATALA -
  Txara 2 Eraikina, Zarategi Pasalekua, 99
  20015 Donostia
  Tel: 943 11 26 77
  **E-maila: lorbegozo@gipuzkoa.net**
- Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileak (NAEL).
- Adopziozko familien elkarteak.

## Nola hasten da prozesua?

Lehen pausoa nazioarteko adopzioari buruzko saio batera joatea da. Hitzordua aurrez hartu behar da 943 11 26 77 telefono zenbakira deituta. Saio hori bi zatitan egiten da, bakoitza hiru ordukoa. Lehengoan, nazioarteko adopzioaren esparru juridiko eta izapidearen prozedura lantzen dira, eta, bigarrenean, nazioarteko adopzioaren alderdi psikologikoak eta heziketakoak. **Egokitasun aitorpena eskatzeko ezinbestekoa da bi saio horietara joatea.**

Halaber, beste informazio saio bat ere egoten da, eta bertan nazioarteko adopzioa izapidetu daitekeen herrialdeekin zuzenean lotutako gaiak planteatzen dira (baldintzak, organo eskudunak, izapide motak…). Saio hori hautazkoa da.

## Oinarrizko baldintzak

- 25 urte baino gehiago izatea. Senar-emazteak edo izatezko bikotea badira, nahikoa da batek 18 urte baino gehiago izatea eta besteak 25 baino gehiago.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizitzea.
- Adoptatuko den adingabearen eta adopziozko familiaren artean gehienez 44 urteko aldea izatea. Senar-emazteak edo izatezko bikoteak badira, gazteenaren adina izango da kontuan.
- Senar–emazte edo izatezko bikoteek gutxienez bi urtez elkarrekin bizi izan direla egiaztatu beharko dute.

## Prozesuaren deskripzioa

**Nazioarteko adopzioaren gaineko saiora joatea.** Lehen saioa amaitzean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaria egin duten familiei egokitasun aitorpenaren eskaera eta txostena hasteko aurkeztu behar dituzten gainerako dokumentuak emango dizkie.



**Egokitasun aitorpenaren eskaria aurkeztea, gainerako agiri guztiekin batera.** Eskarian adopzioa izapidetzeko aukeratutako herrialdea adierazi behar da. Horrez gain, txostena NAEL baten bidez edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren (bide publikoa) bidez izapidetzea hautatu duten adierazi behar dute.

**Eskatzaileen balorazio psiko-soziala.** Gipuzkoako Foru Aldundia eskaria egin dutenekin harremanetan jarriko da, txosten psikologikoa eta soziala egiteko behar diren elkarrizketak egiteko.



**Hala badagokio, Egokitasun Aitorpena eta Agiria ematea.** Egokitasun Aitorpenak hiru urteko balioa du eta adopzio txosten eta/edo prozesu bakar baterako erabil daiteke. Familia bat adingabe bat baino gehiagorentzako egokia bada, adopzioa aldi berean egingo da, eta ez bata bestaren atzetik.

- Egokitasun Agiria adopzioaren une bakarrean erabiliko da, eta ez hilabete edo une batean baino gehiagotan.

**Egokitasun ebazpena interesdunei jakinaraztea.** Une horretatik aurrera, adopzioa NAEL baten bidez izapidetzen bada, erakunde hori arduratuko da interesdunei txostenaren izapidean laguntzeaz. Bide publikoa hautatuz, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak aholkatuko ditu eskaria egin duten pertsonak prestatu beharreko dokumentazioaz eta jarraitu beharreko prozeduraz.

**Txostena prestatzea.** Eskatzaileek adoptatu nahi duten haurraren herrialdeak eskatzen duen dokumentazioa prestatu beharko dute; horrek osatuko du adopzio txostena. Gero, dokumentazio hori eskaria zuzentzen den herrialdeko hizkuntzara itzuli beharko da, legeztatuz eta egiaztatuz.

**Hautatutako herrialdera txostena igortzea.** Txostena hautatutako herrialdean adopzioaren gainean eskumena duen erakundeari bidaliko zaio, NAELen bidez, edota Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren bidez, hautatu den bidearen arabera.

**Hautatutako herrialdeak adoptatzeko haurra edo nerabea eskaria egin duen familiari aurrez esleitzea.**

**Aurretiko esleipena Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzea, hala dagokion kasuetan.**

**Aurretiko esleipena eskaria egin duen familiak onartzea.**

**Familia hautatutako herrialdera joatea eta han adopzioa osatzea.**

**Adopzioa Espainiako erregistro Zibilean erregistratzea.**

**Adopzio osteko jarraipena.** Jarraipen txostenak adoptatutako pertsonaren egokitzapen prozesua ikusteko egiten dira. NAELak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo ditu, familiak hautatu duenaren arabera. Txostenak egitekoan adingabearen sorterriak exijitutako aldiak hartuko dira kontuan



# Adoptatu den pertsonaren herrialdeko izapidea

Adopziorako eskaintza zuzendu den herrialdeko agintaritza nagusiak, txostena baloratu ostean –batez ere eskaini diren pertsonen ezaugarriak herrialde horrek eskatzen dituen baldintzetara egokitzen diren, adoptatzeko dauden adingabeen arabera-. Haur edo adingabe bat aurrez esleituko die gerora haurra adoptatuko duten pertsonei.

Aurretiko esleipen hori, haurrari buruzko informazioarekin batera (egoera juridikoa, haren osasunaren gaineko datuak, familiarenak eta abar), eskaria egin duen familiari jakinaraziko dio, eta, hautatukoaren arabera, baita Gipuzkoako Foru Aldundiari edota NAELari ere, aurretiko esleipena onartzea duten edo ez esateko eta behar diren baimenak jasotzeko.



Izapide horiek egin ostean, haurraren jatorriko herrialdean eskumena duen agintaritza nagusiak edo NAELak gerora haurra adoptatuko dutenei herrialdera joateko data esango die. Egonaldiak beti ez du iraupen bera, baina normalean ez da 15-20 egun baino gutxiagokoa izaten; izan ere, ez da adopzioaren izapidea soilik egiten, batez ere, haur edo nerabearen eta hura adoptatuko duen familiar arteko egokitzapen aldia izaten da.

## Zer egin behar da haurra edo nerabea adoptatu eta gurasordeen herrialdera itzulitakoan?

Gipuzkoara iristean, adopzio-hartzaileak Foru Aldundiarekin harremanetan jarriko dira adingabea iritsi dela jakinarazteko, behar diren dokumentuak emateko (esaterako, adopzio epaia edo ebazpena) eta adoptatutako pertsonaren eta adopzioan hartu duen familiaren arteko egokitzapen fasearen jarraipena ekiteko.

Adopzioak herrialde honetan eragina izan dezan eta adingabeak Espainiako nazionalitatea izan dezan, beharrezkoa da Erregistro Zibilean erregistratuta egotea. Izapide hori honela egin daiteke:

- Adingabearen sorterriko Espainiako Enbaxada edo Kontsulatuan
- Edo, Gipuzkoan bertan, Erregistro Zibil Zentralean edo familia bizi den lekuko Erregistroan; handik bidaliko dute Erregistro Zibil zentralera.

Erregistro Zibileko inskripzioaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundira bidali behar da.

Adopzio sinplea, tutoretza edo zaintza denean, eta adopzioa lortu nahi denean, adingabea Gipuzkoara iristean, beharrezkoa izango da erabateko adopzioa lortzea. Horretarako, familiak behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du eta lehen jarraipen txosten onuragarria egin.



# Zenbat denbora irauten du nazioarteko adopzioa izapidetzeak?

Adopzio bat izapidetzeko behar den denbora kasu bakoitzean desberdina izaten da, baita herrialde berberean ere. Hainbat faktore hartu behar dira kontuan; herrialdeko bertako adopzio eskariak, eskaria egin dutenen ezaugarriak eta abar. Horregatik, ez da erraza epe bat ezartzea, ezta gutxi gorabeherakoa ere.

Oro har, ezin da adopzio prozedura bat modu egokian urtebete baino gutxiagoan amaitu (txostena adingabeen jatorriko herrialdera iristean denetik hasita), eta beti epe hori hartzen da gutxi gorabeherako adierazle gisa.



# Zer gastu dakartza nazioarteko adopzio batek?



**Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten dituen izapide guztiak doan dira, baita Egokitasun Agiria izapidetzea ere.**

Hala ere, adopzio prozeduran halabeharrez gastu batzuei aurre egin behar zaie, eta gastu horiek haurra edo nerabea adoptatzeko prest agertu direnek ordainduko dituzte. Gastuak honako kontzeptuei dagozkie:

- Dokumentuak legeztatzea, notario batek esku hartzen duenean.
- Dokumentuak legeztatzearen tasak, jatorriko herrialdeko kontsulatuan.
- Dokumentazioa itzultzea, adopzioa egingo den herrialdeko hizkuntza ofiziala gure herrialdekoaren desberdina bada.
- Hautatutako herrialdeko abokatuaren ordainsariak, hura izendatzea beharrezkoa denean.
- Hautatutako herrialdera joatea eta hango egonaldia.
- Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen kuotak.
- Txostenak aztertzeko, adingabea prestatzeko eta beste gauzetarako herrialdeak eskatzen dituen ekarpenak.